

GARIZUMAKO I. IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
Garizumako elizkizunek eta penitentziek
egiazko bihotz-berritzera eraman gaitzatela,
Kristoren misterioa hobeki ezagutu eta bizi dezagun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Gn 9, 8-15

*Uholdetik onik ateratako Noerekin
Jaungoikoak egiten du elkargoa.*

Genesis liburutik

Egun haietan, Jaungoikoak hau esan zien Noeri eta Noeren semeei: «Hara, elkargo egiten dut Nik zuekin eta geroko zuen ondorengoekin, eta zuekin izan diren bizidun guztiekin: hegaztiekin, habereekin eta lurreko piztiekin; hitz batean: kutxatik atera eta orain zuekin diren lurreko habere guztiekin. Elkargo egiten dut zuekin, ez dela gehiago izango, lurra hondatuko duen uholderik». Eta Jaungoikoak esan zuen gainera: «Hau da nire eta zuen artean, eta zuekin diren bizidunen artean, gizaldi guztietarako Nik egiten dudana elkargoaren ezaugarria: nire ortzadarra ipintzen dut hodeietan; eta bera izango da, lurrarekin egin dudana elkargoaren ezaugarri. Hodeiak lur gainera bidaltzen ditudanean, ortzadarra agertuko da hodeietan; eta gogoratuko zait, zuekin eta bizidun guztiekin dudana elkargoa; eta ez da izango gehiago, bizidunak hondatuko dituen uholderik».

ERANTZUN SALMOA: Sal 24, 4-5. 6 eta 7cd. 8-9

**R/. Zure bidexka guztiak grazia eta leialtasuna,
Jauna, zure ituna gordetzen dutenentzat.**

Erakutsi niri, Jauna, zeure bideak,
adierazi zeure bidexkak.
Eraman nazazu zeure egibidetik, eta argitu,
Zu baitzara nire Jainko salbatzaile,
Zu zaitut egun osoan neure itxaropide. R/.

Oroi zaitetz zeure errukiaz, Jauna,
oroi zeure maitasunaz, betidanik baitira.
Oroi zaitetz nitaz zeure maitasunean,
Jauna, zeure ontasunean. R/.

On eta zuzen da Jauna,
horregatik erakusten die hobendunei bidea.
Apalak zuzenbidez daramazki,
erakusten die bere bidea apalei. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 P 3, 18-22

*Orduko hura,
gaur salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da.*

San Pedro Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Kristok ere heriotza jasan zuen bekatuengatik behin betiko —Zintzoak, zintzo ez direnengatik—, gu Jaungoikoarengana eramateko. Heriotza jasan zuen bere gorputzean, baina bizia hartu zuen berriro Espirituarengatik. Espiritu honengan joan zen bere mezua hotsegitera giltzapetuak zeuden espirituei, garai batean sinesgogor izan zirenei: Jainkoak bere eramanpena luzatu zuen garaian, alegia; Noe kutxa egiten ari zenean, eta gutxi batzuk —zortzi bakarrik— uretatik kutxan salbatu zirenean.

Orduko hura, gaur salbatzen zaituzten Bataioaren irudi da; eta salbamen hori ez da gorputzeko zikin bat garbitzea, baizik eta Jainkoarengandik bihotz garbia iristea, Jesu Kristo gure Jaunaren piztueraren bitartez. Jesu Kristoren menpean ezarriak izan baitira aingeruak, aginteak eta indarrak; eta orain, zerura igo ondoren, Jainkoaren eskuin aldean dago.

EBANJELIOA: Mk 1, 12-15

Ebanjelio aurreko txatala: Mt 4, 4b

V/. Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,
Jainkoaren ahotik ateratzen den
hitz guztitik baizik.

*Satanasek tentaldian jarria zuen Jesus,
eta aingeruak zituen zerbitzari.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Espirituak basamortura eraman zuen Jesus. Berrogei egunez egon zen basamortuan, eta Satanasek tentaldian jarri zuen; basapiztien artean zegoen, eta aingeruak zituen zerbitzari. Joan bahitu zutenean, Jesus Galileara joan zen, Jaungoikoaren berri ona hotsegitera; honela esaten zuen: «Ordua bete da, hurbil da Jaungoikoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte eta sinets berri ona».

Oparigaien gainekoa

Opari honekin hasten dugu, Jauna,
Pazko misterioaren prestakizuna;
egizu, gure bihotza izan dadila
eskaintza honen betekoa.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Hartu dugun ogi honek, Jauna,
sinesmena bizkortzen digu,
itxaropena sendotzen eta maitasuna indartzen;
erakusiezaguzu

egiazko ogi bizia den Jesusen gose izaten
eta zure ahotik ateratzen diren hitzetan bizia aurkitzen.
Jesu Kristo.